



**3 POLITIKA**  
**Parte-hartze**  
**prozesua jarri du**  
**martxan PSE-EEK**

Jesus Zaballos sozialisten alkategaiak maiatzeko udal hauteskundeetarako programa "herritarrekin batera" osatu nahi duela azaldu zuen asteazkeneko agerraldian. Horretarako etxez-etxe eskuorri bat banatzen ari direla aipatu zuen eta herritarrak hauek betetzera animatu zituen.

**5 ELKARTASUNA**  
**Herriko preso**  
**hitzekin errezitaldia**  
**egin zuten ostiralean**

Bosgarren urtez, Frantzia eta Espainiako espetxeetatik herrira ekarri zuten presoek euren ahotsa. Ordubete iraun zuen emanaldian kantua, irakurketa, grabazioa eta musika nahastu ziren. Berta-ratuko askoren-tzat une hunkigarritz betetako errezitaldia izan zen. Larunbatean beriz, dozenaka herritar joan ziren Bilbora, Sare egitasmoak deitutaiko manifestazio nazionalen parte-hartza, #StopDispersionNow lelopean eta Sorkut elkarretaratza deitu du bihako Okeno dagan, 19:30etan.



# Bortxaketa saiakera urte berrian

laz ere urteko lehenengo egunean beste eraso bat izan zen



Urtarrilaren 3an egin zen elkarretaratzea Okenon, eraso salatzeko.

Herriko emakume talde batek deitua, elkarretaratzea egin zuten ehunka herritarrek urtarrilaren 3an Okenon. Azaldu zuten, bortxaketa saiakera bat izan zen Urteberri eguneko goizean iaz gertatu bezala. "Eraso sexista" hori salatzeko egin zuten elkarretaratzea, 'Eraso sexistarik ez erantzunik gabe! Nahikoa da!' lelopean.

Elkarretaratzea amaitean, Uxue Loñaz eta Leire urte berriaren herri-berriaren testu bat irakurri zuten elkarretaratza deitu zuten izenean. Loñazek gogorazti zuten urtarrilaren Teko bortxaketa saiakera ez dela lehenengo izan: "Duela urtebete beste emakume bat bortxatzen saiatu ziren egun, baldintza eta herri berri-berri; denbora pasa arren gauzak ez dira asko aldatu". Nabarmendu zuen "mundu osoan sistematikoki" gertatzen direla gisa horretako erasoak, eta Lasarte-Oria jazoetako ez dela izan "kasu isolatu" bat. "Ez da eraso hauek gertatzen diren lehenengo ezta azkeneko aldiz izango; horren aurrean zerba

egin behar dugula argi dugu". Leire Amianok esan zuen: "Itrenbide bakarra dago, auto-defensa feminista. Nazkatuta gaude biktima paper honetan kartzelaratuak egoteaz. Ez dugu horrelakorik onartuko!".

**Hiru eraso urtebetean**

Urtarrilaren Teko bortxaketa saiakera hirugarren kasua izan da urte bateko epean. Hain justu, duela urtebete beste bortxaketa saiakera bat egon zen herrian. Bigarren kasua urriaren 24an gertatu zen, emakume batek bortxaketa salaketa bat jarri zuen. 2014aren gisara hasi zen 2015a, Urte Berri egunean beste bortxaketa saiakera bat gertatu baitzen.

**Udalaren babesa**

Udalak egindako elkarretaratzeari atxikimendua eman zion, eta adierazpen instituzionala kalateratu zuen. Lasarte-Oriako Udalak honako jakinarazi nahi du urtarrilaren 1ko bortxaketa saiakeraren aurrean:

- "Udalak babes erabateko agertzen dio bortxaketa saiakera salatu duen neskeri, eta bere familia eta lagunei. Udalaren babes osoa dute; eta bidelagun izango gaituzte, nahi duten neurrian, aurrerantzean eman beharkeko urratsetan.

- Udalak bere salaketa imoena adierazi nahi du izandako bortxaketa saiaketaren inguruan. Ez da onargarria, mingarria eta errepikazina da, izugarria eta oso larria gertatu dena. XXI. mendean, gure kaleetan halakorik gertatzea, ez da salaketa hutesan geratu behar den zerbit.

- Udalak Erantzutzailearen ahal den neurrian ikerketa azkartu dezala eskatzen dio, gertatu dena argitu eta prozedura judizialari hasiera emateko.

- Udalak komunikabideei eskatzen die, halako gaiek beharrezko duten ardurarekin jokatzeko. Gertaturikoa larria ez ezik mingarria ere badenez, erasotak eta familiek merezi eta beharrezko duten intimitatea bermatzea exijitzen dugu. Ez dezagun espektakulurik egin drama honetaz.

- Udalak, konpromiso imoia agertzen du, halakorik berri erepikatu ez dadin beharrezko neurri guztiak hartzeko. Gertara larria, salagarria, mingarria da. Baina ez hori bakarrik, herritarren arteko bizikidetzari arrikuan jartzaren dute arriskoei, pertsonaren askatzen individuala eta intimitatea urratu baitute. Honen aurrean, Udala ez da isilik geratuko, baina garrantzitsuagoa: ez da hitzetan soilik geratuko.

- Amaitzeko, zoritzarrez, berriro ozen esan behar da ez dela kasu isolatu. Horregatik, kasu hauek sufrizten dituzten emakumei salaketa egiteko deia luzatzen diegu gure babes osoa izango baitute".



- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak

- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak



www.electricidadarregui.com

## ETXEBIZITZA

# 'Zabaldu zure etxea' kanpaina herrian

*Hutsik dauden etxebizitzak jabeek etxe horiek alokairuan jartzea da kanpainaren helburu nagusia*

Eusko Jaurilaritzak Bizigune eta ASAP bezalako programak jarri ditu martxan azkenaldian, etxebizitza hutsak alokairu sozialera bideratzeko. Alokabideren bitartez 'Zabaldu zure etxea' kanpaina jarri du abian Jaurilaritzak, etxe hutsen jabeek programa horien berri izateko. Stand bat prestatu dute, gaur eta bihar Lasarte-Orian egongo dena, 10:00etatik 18:00etara, Udaletxe berriko arkupeetan.

## TXINTXARRI

**E**usko Jaurilaritzak 'Zabaldu zure etxeak, irabazi segurua' kanpaina jarri du martxan, EAEn dauden etxebizitza hutsak alokairu sozialera bidaltzeko asmotan, Alokabideren bitartez. Etxebizitza hutsen jabeek kanpaina horien berri izateko, stand bat jarriko du Jaurilaritzak EAeko hainbat herritan. Lasarte-Orian egongo da gaur eta bihar.

"Etxe bateko egongela eroso" irudikatzen duen postua 10:00etatik 18:00etara egongo da zabalik, eta Udaletxe berriko arkupeetan egongo da kokatuta. Alokabidek hutsik dauden etxebizitzak dituzten herritarrek animatu nahi ditu,

Eusko Jaurilaritzaren bermearekin euren etxebizitzak alokairuan jar ditzaten.

Helburu hori erdiesteko zenbait programa badituzte etxeen jabeek, Bizigune eta ASAP esaterako. Programa horien inguruko xehetasun gehiago jaso ahalko dituzte gaur eta bihar herrian egongo den stand horretan.

### Arazoa EAEn

Eusko Jaurilaritzak emandako datuen arabera, 80.000 etxe inguru daude hutsik EAEn, etxebizitza kopuru osoaren %8,7. Hori dela eta jarri du martxan kanpaina hori, EAeko udalerrietako udal guztxekin batera. Xedeak argiak dira: herritarrek alokairuko etxebizitza bat eskuratzeko aukera



Argazkiarena bezalako ixura edukiko du gaur eta bihar Udaletxe berriko arkupeetan jarrita egongo den stand-ak.

izatea eta etxe hutsen kopurua murriztea.

Etxebizitza huts baten jabe diren lasarteitarrek gaur eta bihar edukiko dute aukera etxebizitza alokairuan jartzeko programei buruz informatzeko, 'Zabaldu zure etxea' kanpaina zabaltzeko Alokabidek jarri duen stand horretan.

Alokabidek adierazi denez, "ezinbestekoa" da kanpaina hori, etxebizitza hutsen jabeek programa horien berri izan dezaten. "Programa horien bidez alokairuan eman ditzazkete etxebizitza hutsak, Eusko Jaurilaritzaren berme osoarekin: hileroko errenta berna-

tuz eta etxebizitza egoera onean bueltan jasoko dutenaren ziurtasunarekin".

Lasarteitarrek beraz gaur eta bihar daukate hitzordua Udaletxe berriko arkupeetan, goizeko hamarretatik arratsaldeko seietera, 'Zabaldu zure etxea' izeneko stand horretan.

## 'Ars combinatoria' taldearen emanaldia ostiralean, Brigitarren komentuan

**M**usika doinuak entzun ahaliko dira beste behin Brigitarren komentuan, ostiral arratsaldeko 19:30ean. "Ars combinatoria" taldeak eskainiko du kontzertua, Danok Kide elkarteak antolatutako X. Musika Topaketen baitan.

Ostiralean komentura gerturaten diren herritarrek egitarau zabal batez gozatu ahaliko dute. Bi zatitan banatuta izango du emanaldia 'Ars Combinatoria' taldeak. Ikuskizunak 'Quando fuere menester glosar' du izena.

Kontzertuko zati bakoitzean hainbat konpositoreren seinera pieza eskainiko ditu Ars Combinatoria. Konpositore horiek espainiarak eta italiarrak dira: Diego Ortiz, Gio-

vanni Batista Fontana, Andrea Falconiero, Dario Castello, Girolamo Frescobaldi... Denek badute ezaugarri komun bat: Errenazimenduko garaikoak direla, XV. eta XVI. mendekoak.

### Ibilbide luzeko taldea

Elsa Ferrer (biolina), Alberto Campanero (biolontxeloa) eta Canco Lopez (klabezina) izango dira Brigitarren komentuan ariko diren musikariak. Ostiraleko emanaldia beste urrats bat izango da euren ibilbide luzean.

1991n jaio zen Ars Combinatoria. XVI. mendeko polifonia espainiarra abesteko, J.S. Bach konpositore ezagunaren abestiak jotzeko zein



Ars Combinatoria taldea, izakio azaroen Guadalupean (Madri) eskainitako kontzertuan.

musika propioa garatzeko interesarekin hasi ziren jotzen.

Espainiako hainbat herritan eskaini dituzte kontzertuak, eta baita Ingalaterran eta Ita-

lian ere. Ostiralean ariko da Lasarte-Orian ibilbide luzeko Ars Combinatoria taldea.

### Diruz laguntzen duten erakundeak

#### Babeslea



LASARTE-ORRIA  
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

#### Laguntzailea



#### Argitaratzailea:

Ttatum Kultur Elkarteak  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
943 366 858/943 371 448  
C-20407557  
Legeko gordailua:  
SSS13/93  
ISSN: 1134-0053  
Inprimategia  
Zeroa Multimedia, S.A.  
Aleak zenbakiko: 7800

#### txintxarri

**Eredakzioa:**  
Maider Azurmendi, Jon Altuna  
E-Itzi Goizalez  
**txintxarri@txintxarri.info**  
**Publizitatea eta administrazioa:**  
Aiantza Antola  
**publizitatea@ttatum.com**  
**administratioa@ttatum.com**  
**Laguntzaileak:**  
Unai Muñoz, Corrika Lasa,  
Ane Labako, Itziar Arri, Aisler  
Odrizola, Jone M. Hernandez,  
Jexux Artetxe, Fako Azpirtate, Edu  
Galarza  
**Informatikoa:**  
Xabier Arnoz

## HAUTESKUNDEAK

# PSE-EEK parte-hartze prozesua jarri du martxan

## Helburua hauteskunde programa osatzea da



Jesus Zaballos asteazkenean egindako agerraldian, etxe etxe banatuko dituzten 7500 eskuorrietako batekin.

Jesus Zaballos Lasarte-Oriako sozialisten alkategiak adierazi zuen maiztzeo udal-hauteskundeetarako programa "herritarrekin batera" osatu nahi duela. Horretarako, iradokizunetaz betetzeko eskuorri bat banatzen ari dira etxe etxe. Herritarrek proposamenak idatzi eta postaz bidali beharko dituzte. Hala ere, posta elektronikoko bidez [j.zaballos@lasarte-oria.org](mailto:j.zaballos@lasarte-oria.org) helbidean edota 943 37 71 38 telefonoan ere egin ditzakete proposamenak lasarteoriatarrek.

## TXINTXARRI

Osaila bitartean iradokizun guztiak jasako dituzte udal-hauteskunde programa osatzen laguntzeko. Herritarrek egin dituzten proposamenak jasotzeaz gain, Lasarte-Oriako elkarteekin biltzeko asmoa ere badutela argitu zuen Zaballosek, lasarteoriatarren eskariak

"ikuspuntu zabal batetik" aztertzeko.

Behin herritarren eskari guztiak entzunda, asanblada irekiak antolatuko dituzte martxoetik hasita, proposamenak gaika "eztabaidatu eta orrazteko". Jesus Zaballosek adierazi zuen Aste Santurako "100 konpromiso" hartu nahi dituztela, 2011n egin zuten bezala.

## PSE-EEK Oria eta Antxisuko N-1 errepideko sarrera hobetzea eskatzen du

Diputatu Nagusiaren bisitarren ostein, Jesus Zaballosek mozioa aurkeztu du Diputazioak berriro hartu dezan Allerruko sARBIDEA berriketza proiektua.

Alderdi sozialistako kideak azaldu duenez, proiektu honen arabera, orain dagoen lotura kendu eta horren ordez, errotonda bat eraikitzea zen asmoa "hipodromo formakoa eta N-1 errepidearen gainetik". Zaballosek "egun Lasarte-Oriara sarrera honek, Oria eta Antxisutik egin denak, hainbat arazo sortzen ditu, zaratatza batetik eta bertako bizilagunen segurtasunari dagozkionak bestetik".

Lasarte-Oriarako hegoaldeko sARBIDEA momentu honetan hiru adar ditu: bi Donostiako noranzkoan eta bestea Andoainera. "Lagunaren aukera da Andoaindik datozen ibilgailuentzat N-1etik ateratzea eta Antxisu eta Oriatik 800 bat metro egitea herrigunetik".

"Egoera honen aurrean, Diputazioak aurreko legeingintzaldian Allerruko loturarako aldaketa proposatu zuen". Zaballosek arabera, hau egiteko oraingo pasabidea kendu eta birbilgunea baten eraikuntza aurreikusten zuten Diputazioak N-1 errepidearen gainetik Allerruko gasolinde-

## Lantalde berria

"Ezin dut oraindik inzenik aurreratu, baina hamazazpi laguneko talde berria izango da, gaztea eta ezaguna, Lasarte-Oriako sozialismoak bizi duen garai berrira egokitu-takoa", esan zuen Jesus Zaballosek joan den asteazkeneko prentsaurrekoan. Lasarte-Oriaren alde borrokatzeko "gogo handia" duen jendearen atea jo dituela azaldu du eta "etapa berrirako ilusioa eta bokazioa" daukaten herritarrez inguratu dela azpimarratu zuen alkategiak.

Otsailaren 6tik 20ra bitartean onartu beharko dute zerrenda Lasarte-Oriako sozialisten herritar asanbladan eta onetsiz gero, martxoan egingo da publiko PSE-EEren hauteskunde-zerrenda berria.

## AISIA

## Amarau ludoteka ipuin kontaketa berezia

3-4 urtekoen ipuin kontaketa saioa izango da urtarrilaren 19an 18:00etatik 19:00ak bitarte Amarau ludoteka. HH3-HH4ko haurrentzat zuzenduta izango da eta bigarren hiruhilabetekorako gaia Baseria izango da. Naturaren inguruen arituko dira saioak bigarren hiruhilabete honetan. Aurrekoan bezala, ipuin mutuek ere erabiliko dituzte. Honetan heldu aurretik izena eman beharko dute parte hartzaileek, e-mailaz [aisia@ttakun.com](mailto:aisia@ttakun.com), telefonoz 943 37 14 48 edo Ttakuneko bulegotik pasata. Saio hauek Enara leregik dinamizatzen ditu eta ipuin kontaketa gain eskulana, masaje tailerra, jolasak, abestak... eginen dituzte.

Espertentzia oso polita dela azpimarratu dute antolatzaileek.

## IKASTAROA

## Amarauen laborategi eroa ikastaroa

Ipuin kontaketa bereziak izango dira Amarauen txikieneztat eta helduagoentzat berriz "Laborategi eroa" tailerra. Honetan parte hartu ahal izango dute HH5, LH1 eta LH2ko gaztetxoek, hau da, 2009, 2008 eta 2007. urteetan jaioetako umek. Ikastaroa asteazken edo osteguneko taldeetan egin ahal izango da eta lau saio izango dira gutzira.

Asteazkena hautatzen dutenak, urtarrilaren 21ean hasi eta urtarrilaren 28an, otsailaren 4ean eta 11n izango dituzte saioak. Ostegunetakoak berriz, urtarrilaren 22an hasiko dira eta urtarrilaren 29an, otsailak 5 eta 12an izango dituzte gainontzeko saioak.

Ikastaroa Amarau ludotekan egingo da 17:45etik 19:15arteko orduetean. Aurrez izena eman beharko da [aisia@ttakun.com](mailto:aisia@ttakun.com) helbidean, Ttakuneko bulegoan edota 943 37 14 48 zenbakian. Matrikulak 10 euroko kostua izango du Ttakuneko bazkide direnentzat, eta ez bazkideek, 13 euro ordaindu beharko dituzte. Ordainketa egin ahal izango da txelarekin, metalikoan edota Kutxako 2095-5048-18-1061552351 kontura transferentzia bidez.

## IKASTAROA

## Egur tailan trebatzeko aukera

Manuel Lekuona kultur-etxean egur taila tailarra egin ahal izango da otsailetik abendura bitartean. Guztira 78 orduko ikastaroa da eta asteazkenean izango da 17:30tik 20:30erako orduetean.

Herrian errotatutakoentzat 129 euroko kostua izango du matrikulak eta 214,80 euro ez errotatuentzat. Gaur hasi eta urtarrilaren 23a bitartean eman ahaliko da izena kultur-etxean bertan.

## MEREKATARITZA

## Tratu On Bat markak sarean biltzen ditu herriko merkatarien eskaintzak

Abenduan aurkeztu zuen udalak Aterpearekin elkarlanean garatutako Tratu On Bat webgunea <http://eskaintzak.lasarte-oria.eus/>. Honetan herriko denda eta tabernetako eskaintzak aurki daitezke. Honen helburua herriko merkataritza bultzatzea da eta Aterpeko bazkideak bertan dauden arren, elkartero kide ez direnen parte hartzea ere sustatu nahi du.

Bertan euren eskaintzak jarri nahi dituzten gainontzeko merkatarietan ari diren aukera "sustatu zure enpresa" atalaren baitan. Formulario bat betezea eskatzen da eta ondoren, udaleko merkataritza sailetik jarriko dira harremanetan interesa duenarekin. Bestalde, 943 37 61 83 telefonoan edo [manzano@lasarte-oria.org](mailto:manzano@lasarte-oria.org) helbidean informazio gehiago eskuratu edo zalantza argitu ditzakete merkatariak.

## EUSKARA

## Otsailko kanpaina Udal Euskaltegian

Otsailaren 13ra bitartean izen emateko epea zabalik izango da Udal Euskaltegian. Klaseak astelehentik ostegunera izango dira, 10 orduko modulua astean. Orduetegiari dagokionez: 09:00etatik-11:30etara, 15:00etatik-17:30etara eta 18:30etik-21:00etara. Udaleko diru laguntzak matrikularen % 85. Informazio gehiagorako 943 361 621 telefonoan, euskaltzia@lasarte-oria.org helbidean edo pasa Udal Euskaltegitik.



# Hiru Erregeei harrera beroa

## Gabonetako azken hitzordua izan zen Hiru Erregeen kabalgata gurean

**MEGABA** elkarteak antolatuta Errege Magoei harrera beroa egin zitzaion herrian. Gabonetako azken hitzordua izan zen hau, Santo Tomas azoka, Olentzero eta Mari Domingiren harrerarekin batera. Kabalgatan karroza berriak ikusi ahal izan ziren eta herritarrek, ohi bezala, kalera atera ziren ohiturari eusteko asmoz. Eguerdia lagun, ederki pasa zuten txikienek.

TXINTXARRI

Jendez bete zen Okendo plaza hiru Erregeei harrera egiteko.

Meltxorren ostein, Gaspar erregea mikrofonoaren aurrean jarri eta hitza hartu zuen: "Inon ez digute Lasarte-Orian bezalako harrerarik egin. Gaur eman diguzuen berotasuna ez dugu inon jaso. Horregatik dugu herri hau horren maite". Ez zaio arrazoirik falta errege ilegorriari, jende andana irten baitzen kalera Errege Magoen kabalgata ikustera. Haurrak eta gurasoak irribarretsu; gazteek gozoki-poltsa goraino beteta; aiton-amonen ilusioa eta poza, haur txikienen adinakoa. Itxura ezin politagoa hartu zuen herria.

Oriatik irten zen kabalgata. Hiru erregeak zaldi gainean, paje leialak alboan, zuziak zeramatzen hainbat gazte, patinetan irten zen tal-

detxo koloretsua... eta errepidearen bi alboetan hiru erregeen izenak etengabe errepikatzen zituzten herritarrek. Presarik gabe baina bidetan geratu gabe egin zuen aurrera kabalgatik, Biyak Bat nagusien egoitzara iritsi arte. Bertan geldialditxo bat egin zuten, eta hiru pajeek oparia utzi zuten nagusien egoitzan.

Biyak Bat atzean utzi eta Brigitarren komenturantz abiatu zen desfilea. Meltxor, Gaspar eta Baltasar komentu barrura sartu ziren, bertako mojekin hitz egin eta hainbat gozoki banatzera. Mojek esker ona eta poza erakutsi zuten bisita bereziaren aurrean.

Komentutik aterata, San Pedro eliza, Hipodromo etorbidea, Pablo Mutoizabal kalea, Iñigo de Loyola kalea eta Geltoki kalea zeharkatu zituzten, herritarren gozamenarako. Ondoren, udaletxe berrirantz abiatu ziren, eta su-festa labur



Hiru Errege Magoen kabalgatik herriko kaleak alaitu zituen.

bat ikusi ostein balcoira igo ziren, herritar guztiengana zuzentzeko.

Gozokiak banatu aurretik, hiru erregeetako bakoitzak jen-

daurrean hitz egin zuen. Meltxorrek eta Gasparrek herriko zenbait hauren eskutitz bana irakurri zituzten (euskaraz Gasparrek eta erdaraz Meltxorrek).

Baltasarrek guztien aurrean erakutsi zuen oso ondo moldatzen dela hizkuntzekin: euskaraz, gaztelaniaz zein ingelesez hitz egin zuen.

## Buruntzan agurtu zuten 2014a



Mendi buelta egin ostein, hamaiketako gozoaz gozatu ahal izan zuten Buruntzan.

Urteari amaiera bikaina eman zioten Ttakunek, Ostadar SKTK eta Uztaro kooperatibak antolatutako txangoa egitera animatu zirenek. Buruntza mendira igo ziren, eta mendi horren magalean dagoen San Roke baseliza ezagutu zuten. Hirugarren urteaz antolatutako xango hori Ttakun KEK, Ostadar SKTK eta Uztaro kooperatibak.

mendi-buelta eder bat emateko. Horixe bera egin zuten hainbat mendizaleek: eguzkia lagun, Buruntza mendira igo ziren eta mendi horren magalean dagoen San Roke baseliza ere ezagutu zuten. Hirugarren urteaz antolatutako xango hori Ttakun KEK, Ostadar SKTK eta Uztaro kooperatibak.

Mendizale bakoitza bere aldetik igo zen Buruntzara, baina gero denek batera hamaiketako gozoa egin

ahal izan zuten San Roke baselizaren ondoko aterpean. Egindako esfortzua eta gero, txorizo errea, salda, gazta, ardoa eta sagardoa dastatuz berritu zituzten indarrak txangora joandakoek. Sabela bete bitartean, Urtzi Agirretxe herritarrek girotu zuten hamaiketako, trikiritxia doinuak joz.

Buruntzatik agurtu zuten horrela mendizaleek 2014. urtea.

## PSE-EEko Nerea Artamendik zinegotzi kargua utzi du



Artamendik artxiboko irudian ohiko udalbatzarrean.

Ohiko udal bilkura izango da bihar 18:30ean Udallexean. Honetan gai ezberdinak eztabaidatuko dituzte alderdiek. Lehenik, uztailaren 8ko akta onartu beharko dute zinegotziek.

Ostein, PSE-EEko Nerea Artamendik bere zinegotzi karguari uko eginaz aurkeztutako idatzia egingo da publiko. Aipatu behar da, Artamendik hilabete asko egin dituela plenoetan parte hartu gabe.

Jarraian PSE-EEK iragarritako, Oria eta Antxisuko auzoetan N-1 errepidera sarreraren hobekuntzari buruzko mozioa aurkeztuko du eta azkenik, udal talde sozialistak ere Parisen izandako atentaturaren inguruko adierazpena aurkeztuko du.

Ohi bezala, gai zerrendaren azken puntuan, galdera eta erreguen txanda izango da. Bilkura amaيتa, herritarrek izango dute hitza hartzeko aukera.

# Preseno oihartzuna Manuel Lekuonan

V. Errezitaldia egin zuen ostiralean Presoen Lagunak taldeak, musika, audio eta idatziek

**Bosgarren urtez, Frantzia eta Espainiaok espetxeetatik herrira ekarri zuten presoek euren ahotsa. Ordubeteko emanaldian kantua, irakurketa, grabazioa eta musika nahastu ziren. Bertaratutako askorentzat une hungikarritz betetako errezitaldia izan zen. Larunbatean berri, dozenaka herritar joan ziren Bilbora, Sare egitasmoak deitutako manifestazio nazionalen parte-hartzera, #StopDispersionNow lelopean.**

**TXINTXARRI**

Ostiraleko saioa kultur-erretzeko atarian bertan hasi zen, Txalagorearen txalaparta doinuekin. Bamean, Ahuen taldeko Lide Arroyoren gitarrak eta Maider Galardiren ahotsak ongi-estoria eman zieten ikus-entzule guztiei.

Jarraian, Ane eta Maddi Labaka bertsolariak "irudimena beharraz" hitz egin zuten preso guztiak kalera ateratzeko.

Sarreraren ostean, Peio Eskisabelek espetxetik bidalitako grabazioa eta argazkiak proiektatu zituzten. Bi amets mota egiten dituela kontatu zuen, lotan egindakoak, eta "politagoak", esna egindakoak hain zuzen, aske izatean burutuko dituen gauzak zerendatuta. 2014an aske utzitako Txurdi, Ina, Mitxel, Santi eta Niko ere gogoan izan zituen.

Joseba Tapia trikitalari eza-gunak ere hartu zuen parte V. Errezitaldian, idatzien arteko tarteak girotu zituen trikitalaren laguntza. Xumela Abesbatzak ere beste horrenbeste egin zuen.

Pantailan barroteak eta itzalak ageri zirela, esklerosi anizkotoiarekin gaixo dagoen

Ibion Fernandez Iradi presoak gutun bidez azaldu zuen zigorraren suspentsioa eskatuta duela, baina "maratoiak" ez duela etenik. "Zuek gabe ezingo niokeen eutsi, mila esker bizitzaren alde borroka egiten laguntzeagatik", esanez amaitu zuen Lannemezango kartzelatik idatzitako eskutitza.

Aitzol Iriondok mendira eraman zituen Manuel Lekuonako ikusleak. Basoan, sutondoan, Bea Egizabalen 'Erregearen kororean ipuina' entzun eta tontorra ere egin zuten Iriondoren bertso artean.

Rafa Diezen Naike semeak berri, El Dueso espetxetik aitak igorri zirkion hitzak irakurri zituen. Transizioak eta Konstituzioak Euskal Herriari jarritako "kandadu edo giltzarra" irekitzeko giltza "gure esku" dagoela gogorarazi zien entzuleei eta lehen egitekoa "presoak exertztea" dela nabarmendu zuen.

Emanaldiari kantuz eman zituen amaiera. Mikel Laboaren 'Izarren hautsa' abestiaren hitzek Manuel Lekuonako auditorio nagusiko lau pareten artean egin zuten burrunba, ilunpean, ikusleek piztutako mugikoroa eta txiskeroez soilik argituta.



Bihar 19:30ean Okendon eskualde mailako deialdia egin dute, auzitegiek 55 presoren zigorraren luzapenez erabakiko dutelako.



Errezitaldian hamarnaka herritarrek hartu zuen parte, izan eskutizien irakurketetan, antzerkia egiten, musika sortuz... Emanaldiko argazki guztiak eta laburpen-bideoa tintxarri.ear atarian daude ikusgai.

## Nordic Walking-a herritarren eskura

Nordic Walking-a edo Ipar Martxa herritarrengana hurbiltzeko, urtarilaren 17an, larunbatean 10:00etan, Okendo plazan postua jarriko dute Rosa Ormazabal eta Begoña Moriana Nordic Walk instruktoreek.

Honetan kirol honen inguruko informazioa emango dute eta aldi berean, Itakuen antolatzen duen ikastaroan ere izena eman ahal izango dute herritarrek.

Sustatzaileek aipatu dute-nez, ikastaroa asteazken edo larunbatean antolatuko da jendearen eskaeraren arabera. Bi saio izango dira guztira 5 orduko ikastaroa osatuz. Asteazkenetan taldea atera-

tzekotan, ikastaroaren ordutegia 9:00etan izango litzateke eta jendeak larunbata hautatzen, berri, 10:00etatik aurrera.

5 orduko ikastaro honek 30 euroko kostua izango du.

**Ipar Martxa**

Nordic Walking-a edo Ipar Martxa, azken urteotan azkarren areagotu den aisialdirako jarduerara fisikotako bat da. Finlandian du jatorria.

Bertan, ipar eskiatzaileek udan zehar, elurririk ez zegoenean, entrenatzen jarraitzeko zuten aukera bakarra zen Nordic Walking-a. Elurririk gabeko lurzoruetan makilekin ibiltzea baitzen



Begoña Morianak eta Rosa Ormazabalek gidatuko dute ikastaroa.

haientzat entrenatzeko aukera bakarra.

Hankei ez ezik, besoetara orokorrean soinaren goiko alde osoari eragiten

dion ibiltzeko modua da Ipar Martxa. Adin guztietako jendeak egin dezakeen ariketa da eta ikastaroaren antolatzaileak herritarrek animatzen

dituzte hau probatzen. Ikastaro hau egiteko, Ipar martxa erabiltzen diren makila bereziak utziko zaizkie parte-hartzaileei.

## LABURRAK.

## Eli Iradik eta Jon Esnalek irabazi dute Lasarte-Oriako I. Padel Txapelketa

Hiru hilabete irau du txapelketak. Denera 20 bikote aritu dira astebururo Udal Kiroldegia Loidi-Barrenen dituen padel pistetan partiduak jokatzeko.

Finala abenduaren 28an jokatu zen eta ia ordubete irau zuen neurketak. Eli Iradik eta Jon Esnalek erraztasunez hartu zituzten mendean Iñaki Lopez eta Venta Garmendia, 6-2 eta 6-1ko emaitzaz. Datua, honakoa: Eli Iradik izan zen txapelketako emakume bakarra, eta podiumeko lehen koskara igotzea lortu zuen.

Giroa ere aparta izan zuten finalean, ikusle aldetik bai, baina izan zen beste-lakorik ere. Arratsalde osoan musika jartzen aritu zen DJ Lucky eta Berrobi Dantza taldeak jokalariei agurra dantzatu zuten lehen sakea egin aurritik.

Hirugarren eta laugarren posturako lehian Javi Cobo eta Jon Izeta 7-6 eta 7-5 gailendu zitzaizkien Iñaki Rekondo (Joseba semearen ordez jokatu zuen) eta Ander Rekondori. Kontsolazio finala berriaz, Javi Rubiok eta Aitor Frauskinetik irabazi zuten Edu Franco eta Jeampol Rodríguez bikotearen aurka, 6-3 eta 6-3.

Padel txapelketa amaituta, lehen edizioari amaiera emateko Iruin Sagardotegian afaria egin zuten parte-hartzaileek.

## Arteaga eta Gorrotxategi txapelduen Villabonan, Antton Pebeten oroimenezkoan

Axier Arteaga lasarteoriatarrak eta Aitor Gorrotxategi hernaniarrak osatutako bikoteak jantzi zuten txapela urtariraren 3an Villabonan, pilota munduan izen handia duen Antton Pebeten III. Oroimenezkoan. Finalean, Xabier Santxo usurbildarra eta Kepa Castillo markinarra menderatu zituzten, 22-15eko emaitzaz.

Axier Arteagak eta Aitor Gorrotxategi aurra hartu zuten lehen tanoetan, 11-6 jartzeraino. Horraingo jokatutako kintzeak lukeak eta eritimo bizkoak izan ziren, Arteagak eta Gorrotxategi jarraitako doinuaren egin zuten dantzaz lau pilotariak, 17-9koaz partidua erabakita zegoela ziudien, Buruntzaldeako bikotearen mesedetan. Behabada, abantaila horrek behar baino gehiago erlaxatu zituen Arteaga eta Gorrotxategi, eta aurkariak pilotaldetzean hasi ziren komerik. 17-14 gerturatu ziren Santxo eta Castillo. Dena den, Arteagak bere dohainak erakutsi zituen tanto on bat egin eta sakez beste bi sartzeko. 20-14 Villabonako markagailuan.

Santxo eta Castillo aurkariak ordea ez zeuden berehalakoan amore emateko prest. Beste tanto bat egin eta 20-15 ere jarri zen berdez jokatu zuen bikotea. Tentsioari eutsi egin zion halere Arteagak, eta 21. tantoa ezker gantxo ikusgarriaz egin zuen. Azken tantoa beriz, Kastilloren bitartean bitartez etorri zen eta Arteagak eta Gorrotxategi merezitako txapela jantzi zuten. Izen bat aipatzekotan ordea, Axier Arteaga aurrelari lasarteoriatarrena aipatu behar. Dozena erdi tanto egin zituen, kilate askoak gehienak eta Aurrera Saiazekin Euskal Herriko klubuen txapelketan Eneko Yoldi nafar espezialistari lau t'erdian 18-17 irabazi izana kasualitatea ez dela beretsi zuten berriro ere. Profesional mailari ate-joka ari zaio 18 urteko mutila eta Asegarre enpresarekin entrenatzen ari da, barnean duen gutzia pilotalekuean erakusteko aukeraren zain.

## Buruntzaldea IKT Eguerrietako Nazioartekoan

Abenduaren 29an, Euskal Herrian egiten den igeriketa txapelketari garrantzitsuen osoan zuten Donostiako Paco Yoldi igerilekuan, Eguerrietako Nazioarteko XXIII. Saria han zuden.

Berant lehiatzeko 11 taldekie sailkatu ziren: Iñigo Ibarburu, Itzaso Tolosa, Mikel Esnal, Haitz Mitxelena, Garazi Alkorta, Mikel Soto, Txomin Mujika, Naiara Lizaso, Nahia Jie Villamediana eta Nahia Zudaire. Iñigo Ibarburu eta Mikel Esnal hiruna finalatan izan ziren. Itzaso Tolosa beriz, bitan eta Nahia Zudaire kirol egokitu finaleran aritu zen. Iñigo Ibarburu 50 tximeletako finaleran garaitu izan zen eta 100 tximeletako finaleran Nahia Zudaire ere bigarren sailkatu zen Multidisability taularan araberak.

## SASKIBALOIA.

## Saskibaloia

## 3x3 Lehiaketaren II. edizio arrakastatsua Michelingo frontoian

**Esaera batek dio bigarren zatiak ez direla onak izaten. Beti daude ordea araua berresten duten salbuespenak, eta herriko urteko lehen kirol-txapelketa izan da horietako bat. 3x3 saskibalo lehiaketaren bigarren edizioa antolatua zuen urtariraren 3an Ostadar SKTk eta, lehenengo urtean gertatu moduan, parte-hartze handia izan zuten.**



Ostadar SKTk antolatutako II. 3x3 txapelketako saridunen talde-argazkia.

## IÑIGO GONZALEZ

Saskibaloia giroa izan zenez nagusi urtariraren 3an Michelingo frontoian. Goizeko bederzietatik hasi eta arratsaldeko zazpi t'erdiki arte. Ordu laurdenero partidua, hainbat kategoriatakoak. Tartean, jaurtiketa libre eta hirukoen txapelketa, Saskibaloia festak Lasarte-Orian.

Guztira 44 taldek eman zuten izena, adin txikienetik hasi eta helduetaraino; mutil, neska, emakume eta gizon. Denek egin zitoten saskibaloari omenaldia.

Gogotik gozatu zuten egin osoan zehar partiduk ikustera hurbildu diren guraso, lagun eta saskibaloia zaleek. Frontoia lau zatitan banatu zuten antolatzaileek, eta beste hainbeste kantxa jarri. Ordu laurdenero partidua antolatu zituzten. Bukatzean, jokatzen ari ziren zortzi taldeak erretiratu eta beste zortzi kantxara. Eta horrela egin osoan zehar, eritimo bizi-bizian. Lan asko

egin behar da gisa horretako ekitaldi bat antolatu eta dena behar bezala ateratzeko; hori ez zen posible izango Ostadar SKT, saskibaloia ataleko arduradun Endika Marrahi eta Ostadarreko saskibaloia taldeekin egin zuten lana burutu ere balute.

Lasarte-Usurbil BHI ikastetxeo 2. Batxilergoko ikasleek ere postu bat jarri zuten frontoian bertan. Ura, freskagarriak, tortilla ogitartekoak, txokolate beroa eta bizkotxo gozokak jarri zituzten salgai, besteak beste.

## Parte-hartze handia

44 taldek hartu zuten parte 3x3 Lehiaketaren bigarren edizioan, bost kategoriatan banatuta: alebinak, infantilak, kadetak, juniorrak eta seniorrak. Kategoria guztietan egin ziren mutilen zehar partiduek. Lehen faseko partiduak amaitu ostean, final-laurdenak eta finalak jokatu zituzten kategoria guztietako neska eta mutilak. Gertatu horien tartean egin ziren jaurtiketa librean eta hirukoen lehiaketak ere.

Irabazleak, hauek: Alebin neskak: Landasaski. Alebin mutilak: Erik's Crew. Infantil neskak: Babarunak. Kadete neskak: Sopa de letras. Kadete mutilak: Atletico Crew. Junior neskak: Hopefully noods. Junior mutilak: Denver Mc' Nuggets. Senior neskak: Aitxuri. Senior mutilak: Mandanga style.

Hirukoen jaurtiketen lehiaketetan beriz, irabazleak: Judith (alebinak), Manex (infantil eta kadetak), Iker Ortega (jubenilak) eta Mikel Bermejo (seniorrak).



Lau kantxa eta giro bikaina Michelinen.

## SAN SILBESTRE.

## Herriko korrikariak Donostian, Hernanin, Zarautzen, Villabonan, Azpeitian, Bergaran...

Geroz eta jende gehiagok parte-hartzen du Urteazahar egunean San Silbestre lasterketan. Gipuzkoan 12.000 izan ziren zapatilak lotu zituztenak, eta herrian ere jende asko agurtu zuen urtea San Silbestrearen bat amaituta.

Gehienek Donostiakoa (8,4km) egin zuten, 152 lagunek denera. Guztietan azkarrena Raul Gomez Margallo izan zen 8.postuan 27:43ko denboraz eta emakumezkoetan beriz, Rebecca Villanueva 358. eginez, 36:30ekin. Zarautzen (4km) sei lasarteoriatar izan zuten eta onena Andoni Irustaza izan zen 12. postuan. Villabonan 14 herritarrek parte-hartu zuten eta azkarrenak Javier Pastor eta Pili Bodegas izan ziren. Hernanin ere izan zen herritarrik Wukroren aldeko lasterketan (4km), eta Jon Altunak irabazi zuen. Besaingor lasterketa zuzetuzan (10km) Mikel Ormaztebalek hartu zuen parte, 276. eginez. Hondarribian (6km) Cesar Zarraguiñosen eta Ainhoa Lavado izan ziren onenak eta Bergaroko mendiko San Silbestre gogorrean (6,5km) Iñaki Letamendi eta Alain Espadas iten ziren.

Bestalde, urtariraren 4ko Errege korrika (10km) Endika Gartziaz marka handia lortu zuen 33:32 eginda. Gainera, Yeray Varelek irabazitako Azpeitian San Silbestrean hirugarren egin zuen.





## — Agenda —

Ostirala, Manuel Lekuona kultur-etxean 20:00etan



### Zirku baten azken emanaldia

"Amets Zirkoa salgai" antzezina eskainiko du, Antzerki amateur programaren baitan, Aldatzen Laguntzen taldeak. Kuku antzerki eta dantza eskolak udaleko kultura sailari proposatuko antzezina da honakoa. Bi protagonistek Euskal Herrian zehar bira arrakastatsu bat egitea zuten amets, ehunka ikusle, txalo zaparradak... baina bakarrik geratu dira Azken Putz eta Xorroxin pailazoak. Zirkoa salgai jarri behar izan dute eta azken emanaldia prestatzera doaz. Hau izango da hain zuzen, lasarteiarrek ikusi ahal izango dutena Manuel Lekuonan. Komediaz izango da nagusi baina gutxinaka drama puntuko aurkezten hasiko zaizkigu Ion Martinez eta Saïoa Royo antzezleek. Balada triste de Trompeta, Noviembre, Charles Chaplin-en Candilejas, Circo de los Horrores, La Zarandean "Nadie lo quiere creer", Publikoari gorroto... besteak beste, inspirazio iturri izan dira antzezlan hau sortzerako garaian. Euskal Herriko hainbat txokoetan aurkeztu ostean, ostiralean Lasarte-Oriaren txanda izango da. Sarrera Interne-ten 3 euro eta leihatilan erosita 5 euro.

## Lasarte-Oria

### Zinema

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 18, 19:00etan

"Los pingüinos de Madagascar" filma ikusi ahal izango da haurren zinema atalean. Sarrera 3,80 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 18, 19:30etan

"St. Vincent" filma ikusi ahal izango da helduen zinema atalean. Sarrera 5,50 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 23, 22:00etan

"Paco de Lucía: la búsqueda" film

dokumentala. Okendo zinema taldearen Zine forumean. Sarrera 5,50 euro.

### Bertsolaritza

JALGI KAFE ANTZOKIA

Ostirala 16, 22:30etan

Herriko Earra! Bertso eskolak antolatuta, hirugarren bertso desafioa izango da Jalgin. Kasu honetan, Andoingo bertso eskolaren aurka ariko dira herriko bertsolariak. Sarrera doan.

### Musika

BRIGITARREN KOMENTUA

Ostirala 16, 19:30etan

"Ars Combinatoria" emanaldia Danok Kideren X. musika topaketen baitan. Madrildik datorren taldeak kontzertu berezia eskainiko du. Giovanni Battista, Andrea Falconio eta Dario Castello musikagile italiar barrokoen doinuak entzun ahal izango dira besteak beste. Doan.

### Literatura

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Astearta 27, 18:30etan

Hilabetero bezala, Irakurle Txokoa bilduko da urtarriaren ere. Saio honetan Mari Luz Estebanen "Amaren heriotzak libreago egin ninduen" poesia liburua aztertuko dute. Lan

honetan bertaraturakoek Uxue Alberdi idazle eta bertsolariaren laguntza izango dute. Saioak irekiak dira eta ez da zertan liburua irakurri-eta eraman behar bertan parte hartzeko.

### Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIA

Urtarrilan zehar

Ttakuan kultur elkartek antolatuta, abenduaren 21ean Okendon egin zen Santo Tomas azokako eta Abenduaren 24ean, Olentzeroren etorran egindako argazkien bilduma izango da ikusgai hilabete osoan zehar.

## Herritarren txokoa Eskuitza

Donostia-Lasarte-Oria bidegorria egiteko lanak hasi dira

### Korrikaren materiala

Martxoaren 19tik 29ra egingo da 2015ean Korrika. Urepelen hasi eta Bilbon amaituko da Euskal Herri osoa zeharkatuko duen ibilbidea. Dagoeneko salgai dago materiala herrian, Geltoki Kaleko AEKren Muntteri eskualtean. Neskentzat eta mutilentzat kamisetak, txanoak, jertseak, buffak eta poloko bertan daudela jakinarazi dute AEK-k kideak. Herritarrek eskualtegitik pasa daitezke materiala ikusi eta erostera, goiz eta arratsaldeko orduetegan.

### Lasarte-Usturil institutuko saria

Lasarte-Usturil B.H.I. Institutuko sasiaren zozketa egin eta zenbaki sari-duna 0224 da.

### Santa Teresa ikastetxea

Ate ireki eguna urtarrilaren 13an 17:30ean.

### Zuen oharrak jarri, kezak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858

txintxarri@txintxarri.info

Donostia eta Lasarte-Oria lotuko dituen bidegorriko lanak hasi dira, urtea bukatu baino lehen hasi ere, hau da, agindu bezala. Beraz, dena ondo bidean, eta lanak bukatzeko epea sei hilabetekoa dela kontuan izanda, bidegorria Lasarte-Oriako sanpedrotan prest ez badago, Añorgako karmenetan engongo da, eta, nolana ere, udan.

Albiste bikaina da, ezberrik gabe. Izan ere, bidegorri honi esker, Lasarte-Oriatik Erekaldera oinez edota bizikletaz joan ahal izango da, eta Erekaldeetik barrena Donostiaraino. Eta alderantziz, jakina. Horrela ere, ez dirudi munta handiko gauza, baina bada, zeren eta, ulertezina dirudien arren, gaur egun Donostia eta Lasarte-Oria bitartean ez baitago oinezko eta txirindularientzako loturarik. Ulertezina diogu, ulertezina baita Lasartetik Erekaldeko tanatoriora joateko (2,5 kilometro) derrigorrez autoa, autobusoa edo tren hartu behar izatea. Adibide bat baino ez da. Izan ere, Bigarren Ingarubideak, N-1ak eta kostako errepideak osatzen duten arnarauna zeharkatuzera ausartzen denak arrisku handia hartzen du, hainbat zirkulazio arau urratzeaz gain.

Bidegorriak inkomunikazio egoera

anormal hau gainditzea ahalbidetuko du, eta horrexegatik pauso garrantzitsu dela aitortzen dugu. Dena dela, behin baino gehiagotan esan dugun bezala, Eguzkikook uste duen Lasarte-Oria eta Donostia arteko komunikazioa normalizatzeak bidegorri batetik zaharkotu neurriak eskatzen dituela. Heratuz-mehatuz, Añorgako bulebarbiztako, printzipioz Lore Tokiko birbilgunea baino iritsiko ez dena, nola edo hala Lasarteraino luzatzeko aukera aztertu egin behar dute uste dugu. Halaber, Lasarte-Oriak Donostiarekin ez ezik inguruko herri gehienekin ditu oinezko eta txirindularientzako komunikazio arazoak, batez ere Andoain eta Usturibilkin. Gure ustez, arazo hauek nola konpundu ere aztertu egin behar da.

### Informazio osagarria

Bidegorri berriak 1.230 metro luze eta lau zabal izango ditu, hauetatik bi txirindularientzat eta beste bi oinezkoentzat.

Lore Tokiko birbilguneetik abiatuko da (kontuan izan gaur egun Donostiatik datorren bidegorria gutxi gorabehera hor bukatzen dela, Erekaldeko tren geltokian). Bidegorriak errepideetik beretik egingo ditu lehenengo metroak, karri-

bat okupatuz, baina berehala sartuko da trenbide zati zahar batetik (Eusko Trenek puntu honetan linea bikoiztu du eta zati zahar bat libre geratu da). Izan ere, bidegorriak trenbideko bi tunel zahar zeharkatu beharko ditu, 80 eta 160 metrokoak, hurrenez hurren. Añorga erreak ere zeharkatuko du. Horretarako, hamar metro luzeko zubito bat eraiki beharko da. Bidegorria bukatuko da Lasarte partean, Urbarteko parke aldean, Urbil merkatalguneetik oso gertu.

Abuztuan, bidegorriko lanen lizentziazioa egin zenean, aurrekontua 900.000 euro ingurukoa zen.

Egia esan, legealdit hau hasi baino lehen ere bazen bidegorri proiektu bat, baina azoko luzeragoa zen (Erekaldeetik gorra egin zuten, Belartzin aldera), aldapatsagoa eta garestiagoa. Bidegorri proiektu berriak, berri, orain dela gutxi libre geratu den trenbide zati zaharra aprobetxatzen du eta, horri esker, laburragoa da, zuzenagoa, erosoago (ia ez dago aldaparik) eta askoz merkeagoa. Labur bilduz: eragingarriagoa da, baita eguringarriagoa ere.

EGUZI

# Ikuskizuna Krosaren Katedralean

Medhin eta Saina afrikarrak garaile atzo Hipodromoan, Nazioarteko Krosaren 60. edizioan

Teklemariam Medhin eritrarra gizonezkoetan eta Betsy Saina keniarak izan ziren azkarrenak atzo 60. Nazioarteko krosaren. Ohi bezala, eliteko atletez gain Gipuzkoako atleta gaztetxoek euren maila erakusteko aukera izan zuten Hipodromoan, Krosaren Katedralean. Aurten berrikuntzen urtea izan da halere. Lehen aldiz, ez da urtarriko azken igandean jokatu eta gainera, lasterkari herrikoientzat Donostia eta Lasarte-Oria batu dituen 12 kilometroko krosa egin zuten, asfaltoa eta mendia nahastuta.

Jon ALTUNA EGITEGI

**K**oroa hirukoitza zantzi zuten atzo Teklemariam Medhin eritrearrak Lasarten. Aurrez 2009 eta 2013. urtean jaso zituen bi besoak Hipodromoko azken zuzenguean eta hirugarren garaipen honekin, 60ko hamarkadan oinutsik korrika egiten zuten Mamo Wolde atleta historikoaren marka berinditu du.

Emakumezkoetan, estreinekoz irabazi zuten atzo Donostian Betsy Saina keniarak, pistan 5.000 eta 10.000 metroetan espezialista den iraupen luzeko atleta gazteak.

Gizonezkoen podiumera Teklemariam Medhin (ERI), Timothy Toroitich (UGA) eta Elvis Cheboi (KEN) igo ziren. Emakumezkoen lehen hiru postuetan beriz, Betsy Saina (KEN), Magdalene Masai (KEN) eta Lidia Rodriguez (ESP) sailkatu ziren. Euskaldunen artean onenak, Ivan Fernandez gasteiztara bosgarren postuan eta Maite Maiora mendi-korrikalaria zazpigarrenean. Eneko Agirrezabalek (6), David Garcia (10), Ibone Sanchezek (8) eta Lurdes Oiarzabalek (9) ere lehen hamarren artean sailkatzea lortu zuten.

## Katedrala, blai

Goizean botatako euri zaparradek Hipodromoko barrutia lokaztu zutenaz, erabat zaildu zen korrikalarien lana. Javi Guerra lehen europarrak krosaren gogotasuna eta berotasuna izan zituen gogoan helmugan: "Agonikoa da Lasarten korrika egitea, ez du batere aldaparik zirkuituak, laua da, baina oinak lokatzen barruraino sartzen zaizkizu, txorkatilaraino... Eskerrak publikoaren berotasunari! Hemen bizi den giroa oso leku gutxiatik ikusi dut", zioen komunikabidei egindako adierazpenetan.

Seniorretan, Iraitz Pikabea izan zen 10.100 metro egiteko ausardia izan zuten herritar bakarra. Tamalez, ez zen emakumezkoen irten seniorretan, 6.550 metroko lasterketan. Beheko mailetan, LOKE-Landaberri taldeko Naroa Furundarena, Unai Furundarena, Enara Gonzalez, Aintzane Sarobe eta Leire Centeno eta izan ziren parte-hartzen.

Berriro ere, kirolaren festa handia izan zen Hipodromoan. Hotzari aurre egiteko salda eta txorixo muturra eskutan, atletismoaz gozatu zuten dozenaka herritarrek.



Beste behin, irudi ikusgarriak utzi zizkigun Nazioarteko Krosak. Atleta afrikarrek ez zuten gupidarik izan eta nahierara aritu ziren.

